

## PSOE eta armada: berdinetik gehiago

**DEFENTSA** batzordeak joan zen ekainaren 11n onartu zuen PSOEek indar armatuei eta soldadutzari buruz aurkeztu agiria, eta ekainaren 27an egingo den Kongresuko plenoan eztabaidatuko da. Eztabaida horren helburua da bere politika militarra legebiltzarrean legitimatzea eta, ahal bada, baita giartean ere, eta noski, lerrokaketarekin jarraitzea, soldadutzako lege berri baten bidez.

Gobernuaren politika militarren ardatz nagusia da nazioarte mailan Espainiako izaerarekin egokia den papera jokatzeko, erdi mailako potentzia industrial izanik. Aukera politiko hori oso garbia da, eta horrela jasotzen da agirian, eta azpimarratu du «Espainiak erabaki duela dagokion papera betetzea nazioarteko komunitatean, eta konpromezuak onartzea eta horrek dakartzan erantzukizunak bere gain hartzea». Ondorioak begibistakoak dira: NATOko sarrera sakontzea. Jadanik oharteman da Espainiak parte hartuko duela Aliantzako egituraketa militar berrian, eta asmoak dituela zuzeneko interbentzioko Indarrei gizonak emateko.

Aurreko gerrari buruz gobernuak egin balantzeak politika militaristan gehiago sakontzea dakar. Lehen eragina izango da, armamentuen karrera berriak eragindakoak eta Ikerketa eta Garapeneko gastuak gehitzea, joan zen gerran eraginkorrak direla erakutsitako teknologia berri eta garesti guztiak sar-tzeko. PSOEren agiriaren barnean aipatzen da Defentsa gastua Barne Produktu Gordinaren % 2aren ingurukoa izango dela, ekipamendu maila egokia lortzeko.

Argi dago armamentu industria indartzen jarraituko duela, eta horrek inplizitoki daramana, hirugarren mundua deituriko herrialdeetara armak esportatzea. Ahaztu egin al zaigu Espainiako gobernuak izan zuen erantzukizuna joan zen gerran, hainbat eta hainbat urtetan Iraki sistematikoki armak hornitzeagatik, zeinetan soilik 83-87 urteak bitartean 11.500 milioi pezetak gastatu ziren?

Gainera, eta datu horiek ez dira aipatu agirian, Europar indar komentzialak murrizteko erabakiak, NATOko eta garai bateko Varsoviako

hitzarmeneko herrialdeek sinatua joan zen azaroan, berarekin dakar, paradoxikoki, Espainiako armadaren rearma, desarmarean ordez, izan ere, Europa erdialdeko material militarren soberakinaren zati handia Penintsulara etorriko da material zaharra ordezkatzeko eta lizentziatzeko. Lizentziaren ez dutena derrigorrezko soldadutza da. Gobernuaren apostua gaur egun, argi eta garbi, lerrokatzeko armadarekin jarraitzea da, horren aurka gero eta herritar gehiago egon arren.

Alde batera utzita, armada profesionalaren aurkako argudioen inkoherentziak eta gezurrak, ustez izaera ideologikoa dutenak, Felipe Gonzalezen iriziz erreakzionarioak direnak, zein agiriak, soldadutza gizarte berdinketako faktore dela dio, edo argudio demografikoen utsaltasunak, gobernuak lerrokatzeko bidea honako arrazoi hauengatik hautatu du:

Armada profesionalaren kostua handiagoa izango litzateke, izan ere, erasotzailea ez den armamentuan oinarritutako eredu defentsiboa, neutrala, merkeagoa izango litzatekeen arren, gobernuak argi eta garbi armada prestatu baten aldeko apostua egiten bait du atzerriko interbentzioetarako, NATO eta Mendebaldeko Europaren Batasunean inplikatuak. Bestalde, rearmaerarekin jarraitzeak eta modernizazioak, erabilgarri diren baliabiderik gehienak xurgatzen ditu.

Sakoneko berrikuntza militar berri bati ekiteak, armada militarera pasatzeak eskatuko lukeen bezala, zailtasun gehiago sortuko litzuzke, oraindik aurreko berrikuntza amaitzeko dagoenean.

Boluntarioria bereziaren porrota, soldadu profesionalak edukitzeko ahalegina, nabaria da. Urtean 12.000 plazarako, 6000 eskari baino ez dira egiten, eta gainera, horietatik erdiak ez ditu frogak gainditzen. Nabaria da soldadutzaren desprestigioak eragina sortzen duela oinezko soldadutxoetarako «bokazioan», zertxobait kobratu arren.

Soldadutza 12 hilabetekotik 9ra murrizteko soldadu kopurua jaitsi egingo du. Murrizketa hori gutxiagotzen saiatuko dira, eta horretarako gogortu egingo dute medikuek soldadutzatik libratzeko egin pa-

peren prozedura, horrela gazteak soldadutzara joan ahal izateko, izan ere, askok eguneroko eginkizunak normaltasun osoz egiten bait dituzte, eta bestalde herritar gehiago kontratatuko dituzte, militarrek ez diren eginkizunetarako.

Agiriarekin, azken instantzian armada legitimatzea lortu nahi da. Eta hori nabaria da zentzu honetan: «erabat beharrezkoa da jendeak muga apurtzea, gaur egun Espainian Armadarekiko dagoen arbuioa edo mirespen eskasatik sortua. Horretarako, neurri handi batean, Exekutiboak garaitu beharreko eragozpena intsumisioa da. Hori lortzeko, alde batetik errepresioaren aldeko apostua egiten du, hautatua izaten jarraitzen duena, ez bait du planteatzen egun 2000 baino gehiago diren intsumisio horiek gartzelan sartzea, baina bai intsumisioa geldiaraztea. Agiriaren azken atala, kontzientzia eragozpena eta intsumisioari buruzkoa da, eta horrek adierazten du zer ondorio dituen intsumisioaren estrategiak bere planerako. Jakinik estrategia horrek herritarren babes duela, bere eginkizun nagusia kriminalizatzea da. Agiria zentzu horretan oso argia da, «jarrera horrek», Konstituzio ordenamenduarekin enfrentatua, delituzkoa izateaz gain, sozialki insolidarioa da, eta beraz, beharrezkoa da neurri egokiak ezartzea horrekin behin betirako amaitzeko...» Hori da diskurtso ofiziala eta horrek kontzientzia bat baino gehiago asaldatuko ditu.

Laburbilduz, Iparraldeko aberastasuna Hegoaldeko txirotasunaren ondorioa denean, garatutako herrialdeek azpigaratutakoei baliabideak kentzen dizkietenean, PSOEren defentsari buruzko diskurtsoa, guztia egin ahal duen Iparraldeko defentzera zuzentzen da. Horien aurka daude intsumisioak beraien «insolidaritate handiarekin», antzeko enpresa bateko eskulana izateari ezetz esaten diotenak eta soldadutza eta armadarik gabeko gizarte baten aldeko apostua egiten dutenak.

**J.M. FERRADAS**

BIZKAIKO KAKITZATEKO KIDEA  
\*Erredazioan itzulia

## Izan zirelako... gara

**«BILBOKO** Kontsulatu» 1511ko ekainaren 22an sortu zen. Duela 250 urte baino gehiagotik hona ezagutzen ditugun instituzioen artean indartsuena da. Orduko bilbotarrak ahalbideratu zuten beraien lanarekin eta imaginazioarekin Bilbo izatea Europako herririk dinamikoenak. Enrique Guzmanek, Bilboko merkataritza Ganbarako lehendakaria 70ko hamarkadan, aipatu du Bilboko Kontsuletxearen historiaren hitzaurrean, bost mendeko aurrerapena hartu zigutela, gaur egun komertzioari dagokionari buruz ulertzen dugunarekin.

«Eta ez soilik merkataritza. Inork ez du eztabaidatzen euskaldunak izan zirela Iberiako lehen merkataria, Brujasen beren merkataritza instalakuntza zutenak eta egoitza iraunkorra edo Kontsuletxea jarri zuten».

Benetan gertatutako istorioa da, adierazi du Vlane abadeak, «euskaldunak, harrokeriagatik edo merkataritza interesagatik» ez zutela utzi inoiz geroago sortutako Espainiako Kontsuletxe Nagusiak monopolizatzerik. Independiente izaten jarraitu zuten, baita Burgoseko Kontsuletxea ezarri eta gero ere, eta horregatik, Brujasen Espainako Nazioaren Etxea egoteaz gain, Espainiarren kalean, Bizkaiko Kontratazio Etxea edo Kontsulatu ere bertan ze-

goen, Bizkaitarren Enparantzan, izen horrekin gaur arte.

1937an Bilboko Ordenantzak onartu ziren, bere alorrean eredu, eta komertzial eta merkatalgintzako legedi hori Iberoamerikako herri askotan indarrean egon zen XIX mendeak oso aurrera egin arte.

1829an desagertu zen Bilboko Kontsuletxea, 1812ko Cadizeko Gorteetatik sortutako joera uniforme eta jakobinoen presioengatik eta horiek garraipena lortu ondoren.

Eta kontsolamendu modura, urte batzuk geroago, Portuko Obren Batzordea sortu zen, eta Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbara.

Baina jadanik ez da berdina izango, urte batzuk geroago, Portu Autonomoak ordezkatuko du Portuko Obren Batzordea, ente zentralizatua, non gaur bertako lehendakaria eta zuzendaria Administrazio zentralak izendatzen dituen.

Eta Merkatal Ganbara, 1886an eratua, orain Administrazioaren kontsulta organoa da, eta ez du ahalmenik Bilboko Kontsuletxean.

Desberdintasuna nabaria da. Kontsuletxea Errege erabakiarekin eta zentralarekin eman eta sortu den arren, horren hauteskunde arauak eta funtzionamendua klabe demokratikoagotan ezartzen dira, baseetatik, DES zentralizatuagoak dira..

Beraz, gaur egun koordinazioa defendatzen dutenak, holdingak (Labe Garaietarako, Portuetarako, airoportuetarako, edo Banka ofizialerako), gogorazten diegu badaudela Estatu antolatzeke beste eredu batzuk, ez testimoniala, esperimintatua baizik. Eta uste dugunok posible dela espazio ekonomiko eta sozial bat eraikitzea, baieztatzen dugu demokratikoagoa dela erabakiak baseetara hurbiltzea, urrutzea baino.

Bilboko Kontsuletxeak berarekin ekarriko luke gaur egun Euskal Banku Publiko bat edukitzeko posibilitatea, Gizarte Segurantzaren transferentzia, Euskal instituzio autonomoen partehartzea sektore publiko ekonomikoan, hala nola, portuak, aeroportuak, Repsol, Acenor, Ico etab. Azken finean, euskal espazio ekonomiko eta soziala sortzea izango litzateke, arrazoi historikoetan zein eraginkortasunetan oinarrituta, eta baita gure gizarteko gehiengoaren borondatean ere.

Izan ere, izan zirelako ... gara, eta garelako... izango dira.

**JOSE MARIA GORORDO**

BILBOKO MERKATAL GANBARAKO  
IDAZKARIA  
\*Erredazioan itzulia

## BERRIAK ZIRI



**MOSTAFA TOLBA**  
Nazio Batuen Erakunde  
Ingurugiroari buruzko  
egitarauaren zuzendaria  
EL SOL  
1991-VI-28

«Urtero 20

milioi hektarea baso tropikal  
gutxiago dago»



**KARMELO LANDA**  
Herri Batasuneko  
eurodiputadua  
EGIN  
1991-VI-28

«Espainiako

lehendakariak du erantzukizun  
nagusia GALEk 26 euskaldun  
erahiltzeagatik»



**ANTONIO GUTIERREZ**  
CCOO sindikatuko  
idazkari nagusia  
EL MUNDO  
1991-VI-28

«Ezin da

Alemaniarekin lehiatu Hirugarren  
Munduko soldatak edukita»



**MILRN KUKAN**  
Esloveniako lehendakaria  
LA VANGUARDIA  
1991-VI-28

«Ezin dugu

konfederatu tankeak bidaltzen  
dizkigutenekin»

## ZAKILIXUT

© Olariagak

